

**ANIZTASUNARI BURUZKO
GOGOETA TXIKI BAT**

Edozein gizarte osasuntsu aldatzen ari da etengabe. Hala ere, abagune historiko batzuk beste batzuk baino erabakigarriagoak izaten dira gizarteen bilakaeran. Bereziki garrantzitsuak izaten dira etorkizunari buruzko egitasmo desberdinen artean gainditu ezineko borrokak agertzen diren uneak, nazio-identitate desberdinen artean gainditu ezinezko gatazkak hasten direnean, edota gizarte horretako elkarteek bizitzeko ezinbestekotzat jotzen dituzten esparru sozio-politikoak ukatuta ikusten dituztenean. Izan ere, oreka berria lortu arteko iragapen momentuetan, gizarteek euren izaera berriz definitzen, nahi den etorkizun mota zehazten eta bizi-maila hobetzen, edo gutxienez mantentzen, lagunduko duten erabakiak hartu behar izaten dituzte; eta horrek krisi edo nolabaiteko egonezin sensazioa sortzen du gizarte horretako kideen artean.

Nire ustez, horrelako une historikoan murgildurik dago, gaur egun, Euskal Herria; hain justu ere, XX. mendearen erdira arte heldu den gizarte eredu nagusia errotik aldatzen dagoelako, baita ere tradizioz jaso ditugun balore, ohitura eta portaera sozio-ekonomiko asko zalantzan daudelako.

Gizarte homogeneoa izatetik gizarte heterogeneora pasatu gara, eta, apurka-apurka, ikuspuntu, balore eta nazio-identitate

desberdinak ugaritu egin dira gure artean. Aniztasun izugarria duen gizarteak daukagu, baina ez dakigu aniztasun hau nola kudeatu. Ez dakigu zer-nolako gizarte eredu nahi dugun, ezta ere gizarte honen oinarriak zeintzuk izan behar diren. Dakigun gauza bakarra da gehiago ez dugula gizarte homogeneousorik izango. Are gehiago, hizkuntza, nazio identitate eta kultura ugarirekin bizitzen ikasi beharko dugu, edo gureak egin du.

Iragana hiltzen eta, aldiz, datorkigun mundu berria deskubritu eta zehaztu gabe dagoen une honetan, euskal nortasuna, Euskal Herria, euskara eta euskal kultura babesteko hartu beharreko erabakiei eta jarraitu beharreko bideei buruzko zalantza izugarriak ditugu. Horrek denak noraezeko egoera, nahi dugun gizarte motari buruzko buruhausteak eta zalantza ikaragarriak, eta gure gizarteak krisi sakonean dagoelako sentazioa sortzen ditu. Egitasmo politiko desberdinen arteko gatazka bortitza zein borroka armatua bera ere bizi dugun krisiaren edota noraezeko egoeraren adierazle batzuk besterik ez dira.

Euskal gizartearen postmaterialismoa

Ronald Inglehart-ek mendebaldeko herrialdeetan bizi diren biztanleen baloreak ongizate materiala eta ziurtasun fisikoari garrantzia ematetik, bizi-kalitatea azpimarratzera pasatzen joan direla esaten zuen 1977. urtean; hau da, balore materialistetatik postmaterialistetarako jauzia egin dutela. Ondorioz, gai politiko berriek garrantzia hartzeaz gain (ekologia, emakumeen berdintasuna, kontsumitzaileen eskubideak...), era askotako gizarte mugimenduak indartzen joan dira azken urteotan. Herri, lantegi eta, orokorrean, politika gaiekin loturiko erabakiak hartzerakoan gizakien partehartzea handitu nahi izatea, gizarte gizatiarragoetan eta baketsuagoetan bizitzeko gogo, garapen jasangarria lortu nahi izatea edota herrialde txiroen garapena ahalbidetzea, ideologia postmaterialista honen adierazle argienak izango lirateke.

Ez da erraza euskal gizartean gertatzen ari diren aldaketei buruz hitz egitea. Pertsona mota ugari bizi baitira Euskal Herrian; bizimodu, ideia eta gizartearekiko ikuspuntu desberdinak dituztenak. Dena dela, euskal gizartea nolabait definitu behar banu, gizarte postmaterialista dela esango nuke.

Soldaduskarekiko intsumisioak euskal gizartean hainbeste indar izatea (Euskal Herrian munduko intsumiso kopururik handiena dugu), birziklatzen dugun zaborren kopurua Europako iparraldeko herrien antzerakoa izatea edota gero eta jende gehiagok Gobernu Kanpoko Erakunde eta gizarte mugimenduetan parte hartzea (ekologistak, hirugarren munduarekiko elkartasun taldeak, presoan aldeko plataformak, bake taldeak...) jarrera postmaterialista honen adierazle batzuk besterik ez dira.

Hala eta guztiz ere, postmaterialismo hau jarreraren edota ideien maila gelditzen denaren susmoa daukat. Ez da ahortzi behar %5era ere ez dela heltzen alderdi politikoetan, talde bakezaleetan edo sindikatuetan parte hartzen dutenen portzentia. Hau da, %5era ere ez da heltzen ideologia postmaterialista praktikan jartzen dutenen biztanleriaren ehunekoa. Eta hau jende kopuru txikiegia da, nire ustez, etorkizunerako balore postmaterialistetan oinarrituriko gizarte bat eraikitzen ari garela esateko. Jende gutxiegi da Euskal Herria eraberritzeko eta eredu berrien aldeko sua pizteko.

Postmaterialistagoak gara, baina gero eta gizarte indibidualistagoa dugu. Nahiz eta masifikazio egoeran bizi garen (jende pila bizi den etxeak, jende askorentzako garraio zerbitzuak...), giza harremanak zailak dira, eta gero eta bakardade handiagoa dugu. Gauzek, nagusiki ikus-entzunezko komunikabideek, izugarrizko garrantzia hartzen ari dira; hain zuzen ere, besteekin eduki ezin ditzakegun harremanen ordezkotzako bihurtu ditugulako. Telebista eta *Internet* gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure harreman beharrianak ase-

tzeko, nahiz eta hauek, paradoxikoki, giza harremanen gale-
ra bultzatzen dutenak izan.

Etorkizunean hobeto eta gehiago biziko bagara ere, gizarte indibidualistagoa izango dugu, eta horrek dakarrena da barru-
rako joera izugarria; eta, paradoxikoki, baita kontsumoaren gurpil zoroan murgiltzeko beharra ere. Egiaz, kontsumoa da gaur eguneko gizarte aberatsen, eta, beraz, baita ere Euskal Herriaren eskape berria; gure frustrazio eta zalantza guztien sendagaia.

Aristotelesentzat gizakion berezitasun garrantzitsuena po-
litikarako dugun gaitasuna da; hau da, gizakia *zoom politi-*
kom bat da. Deskartesentzat, aldiz, gizakia bereizten duena
da bere pentsatzeko gaitasuna (*cogito ergo sum*). Beste auto-
re batzuentzat, langile edo *homo faber* izatea edo sukaldari-
tzan aritzeko gaitasuna dira gizakiak beste bizidunengandik
bereizten dituenak. Nire ustez, XXI. mendeko euskal gizakia-
ren berezitasun garrantzitsuena da kontsumitzaile gisa aritze-
ko gaitasuna; hots, *homo erosle* izatea. Erosketak egiten pa-
satzen dugun denbora eta arlo honi gure bizitzetan ematen
diogun garrantzia kontuan hartzen baditugu, ez da gehiegi
esatea kontsumoa dela gure bizitzetako ekintzarik garrantzi-
tsuenetarikoa.

Honela, bada, euskal gizartearen joera postmaterialistak di-
tuen gizarte pragmatikoa dela esango nuke. Foken heriotza-
rekin, txetxeniaren egoera kezkarriarekin edota Prestigek
sortutako marea beltzarekin urrikaltzen dena; baina, era be-
rean, bizitza eroso eta lasaia beste gauza guztien gainetik
jartzen duena.

Elkarteetan bizitzeko, erabakiak taldean hartzeko edota el-
karteak osatzeko joera izan da mendeetan zehar euskal norta-
suna, hizkuntza eta kultura babesten lagundu duen faktorerik
garrantzitsuena. Herri-baso eta herri-lurren kudeaketa herrita-
rren artean egiteko joera, auzo-lanaren garrantzia, larreen era-
bilera artzainen elkarteak arautzeko ohitura eta, oro har, onda-

sun iraunkorren kudeaketa erabakitzerakoan elkarteko guztien interesak babestu nahiak Euskal Herriaren biziraupena ziurtatu du. Gizarte indibidualista, kontsumista eta hedonista sortzen ari garela kontuan hartuz, zer gertatuko da euskal nortasunarekin elkartearen garrantzia desagertzen denean? Zer-nola eraginak izango ditu hedatzen ari diren bizimodu eta balore berriak euskal nortasunarengan?

Euskal gizartearen konplexutasun soziala

Euskal Herriak naziotasun-sentimendu, hizkuntza, estatu-eredu, egitasmu politiko, diagnostiko eta mito desberdinak ditu. Gizarte konplexua da. Gazteak, nagusiak, afrikarrak, frantses sentitzen direnak, dendari txikiak, azalera handiko gune komertzialen interesak defendatzen dituztenak, espainolak, emakumeak, gizonak, ertzainak, artzainak... Aniztasunik inon bada toki hori Euskal Herria da. Gizarteko sektore bakoitzak bere beharrizan, nahi eta interesak ditu gainera. Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen kanpainak zioen bezala: tabernariak lan egin nahi du, bezeroak parranda egin eta auzotarrak lo. Gero eta talde eta interes antolatu gehiago dagoen gizartean bizi gara. Arazoa da oraindik ez dugula zehaztu zer-nola kudeatu behar dugun aniztasun hau guztia.

Gainera, gure gizartearen konplexutasuna handitu egingo da etorkizunean. Ezagutza maila oso handia edo oso txikia behar den lanbideetan lan-eskuaren beharra dagoenez, etorkinen kopurua handitu egingo da. Ondorioz, naziotasun-sentimendu, hizkuntza, estatu-eredu, egitasmu politiko, diagnostiko eta mito gehiago agertuko dira .

Gaur egun beste arraza, kultura eta jatorri batzuetako pertsona gehienak hiri handietan eta auzo zehatzetan (Bilboko Bilbo Zaharra auzoan, adibidez) bizi badira ere, apurka-apurka herri txikietan barrena ere ikusiko ditugu. Horrek bizimodu, erlijio, ohitura eta, orokorrean, kultura desberdinak dituztenekin bizi-

tzen ikasi beharko dugula esan gura du. Euskal gizarte heterogeneoaren sorrera 50. hamarkadan hasi zen, 80. eta 90. hamarkadan egonkortu egin zen, eta XXI. mendearen hasieran, etorkinen uholde berriekin, aniztasun mota berriak agertu dira.

Beraz, etorkinen inguruan sortu daitezkeen arrazakeria eta arazo sozialak saihesteko, hauen beharrianak kontuan hartuko dituzten politikak sustatu beharko dira. Zentzu honetan, Euskal Herriak duen erronka sozialik garrantzitsuenetarikoa etorkinen egoerari behar bezalako erantzuna ematea da. Bestela, arrazakeria, bazterketa soziala eta, oro har, gizarte gatazkak nagusituko dira, guztion elkarbizitza kaltetuz.

Dena dela, denbora aurrera doa eta ez dirudi arlo honetan aurrerapausorik ematen ari garenik. Etorkinen eskubideak ziurtatzeko eta arrazakeria saihesteko ez dago inolako egitasmorik edo plangintzarik; ezta etorkinen etorrerak euskal kulturarengan izan dezakeen eragin negatibo eta positiboei buruzko gogoeta orokorrik ere. Gauzak horrela, galdera asko sortzen zaizkigu: etorkinek ekarriko duten aniztasunak nolako eragina izango du euskal kulturarengan? Nola kudeatu behar da bizi-modu, erlijio, ohitura eta, orokorrean, kultura ugari izango dituen Euskal Herria? Nola ziurtatu guztien eskubideak? Nola erakarri etorkinak euskal kulturara?

Euskal gizartearen konplexutasun kulturala

Euskal Herrian hizkuntza eta kultura desberdinak bizi dira bata bestearen alboan. Elkarren ondoan bizi gara frantsesez pentsatzen dutenak, euskaraz pentsatzen dugunok eta espainolez pentsatzen dutenak. Mundua ikusteko eta gauzak ulertzeko modu desberdinak daude. Aniztasun honek euskal kultura ulertzeko eta aniztasunak sortzen dituen zalantza eta arazoak konpontzeko irtenbide desberdinak aurkezten dira.

Batzuentzat, Euskal Herrian dugun kultura anitzen arteko gatazkari irtenbidea emateko modurik onena mestizaia bultza-

tzea da; hau da, Euskal Herrian elkarren alboan bizi diren kultura eta munduaren ikusmolde desberdinen gurutzaketa lortzea. Ikuspuntu kultural eta linguistiko eksklusibistak alde batera utzita, Euskal Herria mestizoa eraiki behar da.

Niretzat, aldiz, ez dago argi nolakoa den modu honetan eraiki nahi den gizarte mota. Gehiago dirudi euskal kulturaren eta nortasunaren berpizkundea oztopatzeko estrategia bat dela; alegia, gauzak bere horretan uzteko nahia dago ideologia honen atzetik. Izan ere, bere nortasuna mantentzeko borrokan diharduen herriei planteatzen zaie bakarrik mestizaiaren garrantzia. Dirudenez, mestizaia ona da bakarrik herri menperatu eta txiki-txiki; hau da, ia beti bi edo hizkuntza gehiagorekin bizitzea beste aukerarik izan ez dutenentzat eta mestizaia nahitaez onartu behar izan dutenentzat. Kultura eta hizkuntza indartsuak dituztenek ez dute planteatzen mestizaiarik. Besteok izan behar gara mestizoak euren beharrian guztiei erantzuteko eta euren estatusa zalantzan ez jartzeko.

Bestalde, aniztasunaren auziak euskal kultura definitzeko arazoak sortzen ditu. Askorentzat ez dago argi euskal kultura zer den. Euskaraz egiten den kultura da? edo Euskal Herrian bizi direnek egiten dutena? Hau da, ez dago argi euskal gizartearen eraikuntza kulturala irizpide etniko-linguistikoetan oinarrituz egin behar den, hizkuntza kontuan hartu gabe kultura egiten dutenen bizi-tokiaren arabera egin behar den edo irizpide biak kontuan hartu behar diren.

Urteak aurrera doaz eta ez da inolako kultur interbentzio-planik ikusten. Gai honen inguruan eztabaida eza nabari da, eta, ondorioz, ugariak dira euskal kulturak jarraitu behar duen bideari buruzko zalantza, nahaste eta akatsak. Zein da Euskal Herriko hiru kultura nagusiek Euskal Herrian izan behar duten tokia? Zenbat diru zuzendu behar da euskal kulturara behar bezalako bilakaera eta indarra izan dezan? Nolakoak kultur eremu desberdinen arteko harremanak? Zein da bakoitzari dagokion espazio eta funtzioak? Galdera

hauei guztiei behar bezala erantzun beharra dago. Izan ere, gurea bezalako kulturen oraina eta geroa, euren identitatearen oinarritzko elementuen jarraipena mantendu eta egunero eraikitzeko gaitasunean oinarritzen da; eta horrek, inbertsioa, hezkuntza, behar bezalako bitartekoak, kalitatea, lehiakortasuna eta barne ekoizpena bultzatzea eskatzen du. Eta hori baino garrantzitsuagoa dena, euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea. Zentzu honetan, euskal kulturak ez du etorkizunik euskararen egoera sendotzen ez bada. Eta honek esparru kultural gehienetan erdarazko ereduak nagusi izan ordez, euskarazkoei sarbidea ematea eskatzen du.

Inolako kultur interbentzio-planik gabe eta euskal kulturak jarraitu behar duen bideari buruzko zalantza ugari dugun egoera honetan, gero eta kultura eta hizkuntza arrotz gehiago sartzen ari zaizkigu etxean.

Batzuen ustez, komunikabideen garapenak ekarri digun kultur aniztasun honek herri askoren desagertzea ekarriko du. Teknologia berriak herrialde aberatsen eta, beraz, hizkuntza indartsuen, bereziki ingelesez hitz egiten duten herrialdeen, eskuetan daudenez, hizkuntza eta kultura gutxi batzuk gailenduko dira munduan. Gauzak ikusi eta ulertzeko modu desberdinak eredu kultural menperatzaile gutxi batzuen mende geldituko dira, hizkuntza eta kultura txikiak desagerraraziz. Globalizazioak, bada, joera bateratzaileak eta identitate kolektiboaren desagertzeak bultzatuko ditu, baina estaturik gabeko herri askoren heriotza ere.

Beste batzuentzat, aldiz, gehiegizkoa da esatea XXI. mendean estaturik gabeko herrialde gehienek kultura, hizkuntza eta, oro har, nortasuna desagertu egingo direla. Izan ere, gutxitutako egoeran dauden herrialde batzuei aukera ugari ere agertzen zaie mundializazioarekin. Horrela, ikus-entzunezko komunikabideak behar bezala erabiltzen hasten diren hizkuntzek, nolabaiteko babes ofiziala lortzen dutenek, euren hizkuntza eta, oro har, kultura babestearen kontzientzia eta garrantzia lortzen duten he-

rriek eta botere politikoa eskuratzen dutenek etorkizunean ere bizitzeko aukerak izango dituzte.

Kontrako ikuspuntu hauen aurrean sortzen zaizkigun galderak dira: nola dago prestatua Euskal Herria eta euskal kultura globalizazioaren aurrean? Zer gertatuko da ikus-entzunezko komunikabideen garapen eta hedakuntzaren ondorioz kultura indartsu asko gure etxe barneraino sartzen hasten direnean? Gai izango ote gara gure berezitasunak galdu gabe inguruko kulturen gauza onak bereganatzeko eta aprobetxatzeko?

Euskal gizartearen konplexutasun politikoa

Euskal Herria gizarte konplexua da. Nazio-identitate eta atxikimendu politiko, ekonomiko eta sozial ugari ditu. Bateriaezinak diren eta askotan modu istilutsuan harremanetan sartzen diren elkarteak, gizarte egitasmoak, mundu ikuskerak eta nazio-identitateak daude.

Zortzi urte nituen Franko hil zenean. Umea izanik ere oso bizirik daukat zer-nolako baikortasunez ikusten zuten etxeok etorkizuna. Aldaketa posiblea eta egiazkoa zen.

Harrezkero konturatu naiz orduko usteak erdi ustelak zirela. Garai hartan txikiegia nintzen konturatzeko *Euskal Gatazka* deiturikoari emandako irtenbideek (autogobernua garatzeko oztopoz beteriko Estatutua, Nafarroako Foru Komunitatearen eta EAEren arteko banaketa administratiboa, gutxiengo etnikoen garapenerako konstituzio desegokia...) bere baitan zutela gaur eguneko egoera nahasi eta istilutsuaren hazia. Bateriaezinak ziren eta gatazka bizirik mantendu duten nahi, estrategia eta ikuspegi kontrajarriak zeuden hasiera hasieratik.

Batzuk (PP eta PSOE-k, batik bat) Espainiaren batasuna ziurtatu eta ETA-rekin bukatzeko estrategia huts bezala ikusi zituzten EAEko Estatutua eta Nafarroako Hobekuntza Lege

Organikoa. 1978ko Konstituzioaren inspiratzaileek tresna politiko hauek biak beste bide batzuk huts egin zutenean euskaldunak era baketsuan Estatu espainiarrean mantentzeko estrategia bezala onartu zituzten. Estatutua eta Nafarroako Hobekuntza Lege Organikoa euskaldunen eta nafarren arteko elkargunea dira hauentzat, baita gizarte hauen aniztasuna ziurtatzeko modu bakarra ere.

Estatutua eta Hobekuntza Legea euskal identitatea garatzeko abiapuntu egokiak izan zitezkeela esaten zutenak ditugu bigarrenik (nagusiki PNV eta EE). Hego Euskal Herriaren banaketa administratiboa onartu behar bazen ere, Estatutua eta Hobekuntza Lege Organikoa euskal identitatea eta erabaki gaitasuna berreskuratzeko bide egokiak izan zitezkeela pentsatzen zuten. Hauen artean ez ziren gutxi izan (PNV-koak, eta, ondoren baita EA-koak) EAEko Estatutua autogobernuan aurrera egiteko lehen pauso garrantzitsu bezala ikusi zutenak. Bere agindu gehigarria oinarritzat hartuz, Estatutuaren bidea autogobernurako eta euskal nortasuna babesteko bide egokia zela azpimarratzen zuten.

Hirugarrenik, ENAM-en ikuspuntua garatzen joan zen; hain zuzen ere, Hego Euskal Herriaren banaketa eta horren eragile diren Estatutua eta Hobekuntza Legea hasieratik agortutako iturriak zirela zioena. Inozokeri hutsa da, hauen ustez, Estatutuak euskal nortasuna babestuko duela pentsatzea. Estatutuak euskaldunon mendekotasun kulturala besterik ez dakar.

Hego Euskal Herriko erakundeen garapenaren aurrean sortu ziren hiru ikuspegi nagusi hauek bitan eraldatu ziren Lizarra-Garazi bake akordioa sinatu zenean (1998). Nazionalista espainiarren zentralismoaren aldeko jarrerak eta abertzale euskaldunen autogobernu joerek inoiz baino argiago agertu ziren. Lizarra-Garazi akordioak Euskal Herriko indar politikoen berrantolaketa eta, ondorioz, Foruzale eta Liberalen arteko kalapita zaharra eguneratu eta berrindartu zuen. Abertzale euskaldunak Euskal Herriak XIX. mendean galdu zituen

Foruak eta autogobernua berreskuratzearen alde agertu dira (eskumen politikoak, euskaldunen zerga-arau berezia...). Nazionalista espainiarrek, aldiz, Euskal Herria Espainian integratzearen aldeko jarrera agertzen dute.

Aniztasun politikoa errealitate bat da gure herrian, eta etorkizunean ere hala izango delakoan nago. Banaketa eta liskar politikoek aurrerantzean ere indartsu jarraituko dute. Izan ere, abertzale euskaldunen eta nazionalista espainiarren arteko borroken azpian bizimodu, mundu ikuskera eta ideologia desberdinen arteko gatazka dago. Abertzale euskaldunak, asko eta asko euskara eta euskal kultura bizirik dirauten herri txikietakoak, autogobernuaren eta euskal nortasunaren babesle agertzen dira. Unionistak, ia gehienak hiritarrak (kontuan izan 1999ko hauteskunde orokorretan PP alderdiak irabazi zuela Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan), estatu-zentralista babesten dute, Euskal Herrian kultura espainiarra nagusi izatearen alde daude eta Euskal Herrian Estatu espainiarrean jarraitzea nahi dute. Karlistadek ondorengotza eskubideei buruzko eztabaiden azpian arazo ideologikoak eta bizimodu desberdinen arteko eztabaidak ezkutatu zituzten bezala, gaur eguneko gatazka politikoak ere oinarri ideologikoa du, eta Euskal Herriarentzat nahi den etorkizun kultural eta politikoarekin eta gatazkan parte-hartzen dutenen bizitza-estiloekin zerikusia du. Euskal gatazka mundu ikuskera, bizimodu eta egitasmo kultural desberdinen arteko eztabaida da oinarrian, eta ez da konponduko guztien arteko akordio sendoa lortzen ez den bitartean; alegia, aniztasuna behar bezala kudeatzen, zaintzen eta errespetatzen ez dugun bitartean.

Nolako pausoak ematen ari gara mundu ikuskera, bizimodu eta egitasmo kultural desberdin guztien arteko eztabaida bultzatzeko? Zer-nola bultzatzen ari gara guztien arteko elkarrizketa? Ez dirudi gai honen inguruan inolako gogoetarik dagoenik. Ez dirudi ideologia politiko edota kultura desberdinen artean negoziazio prozesurik dagoenik.

Gauzak horrela, asko dira diotenak epe labur eta ertainean Estatu espainiar eta Frantziarraren aurkako borroka honetan ideologia abertzalea eta, oro har, euskaldunon herri nortasun ahultzen eta desagertzen joango direla. Mundializazioarekin homogeneotasun kulturala eta estaturik gabeko herrialdeen eskumenen ahultzea datorrenez, era honetako herrialdeetako nazionalismoa zein kultura eta nortasuna ere ahultzen eta hiltzen joango dira.

Arazoak arazo, nire ikuspuntua da abertzaleen ideologiak eta, oro har, Euskal Herriak XXI. mendean ere iraungo dutela. Azken 25 urteetako hauteskundeetan bozka abertzaleak izan duen portaera ikusita, iruditzen zait autogobernuaren aldeko borroka politikoak bizirik iraungo duela aurrerantzean. Nazionalista espainiarren ideologia eta nortasun politiko eta kulturala oso indartsu badago ere, abertzale euskaldunen ikuspegiak sustrai sendoak ditu.

Bigarrenik, teknologia berriek herrialde txikien alde egingo dutela pentsatu behar da. Komunikabideen garapenak herri nortasuna gordetzen eta garatzen lagunduko du. Hainbat autorek globalizazioarekin datorkigun zibilizazio neoliberalaren ondorioz demokraziak ahuldu, gizakien zein herrialdeen askatasuna galdu, pentsamendu bakarra hedatu eta multinazionalen agintea gailenduko dela azpimarratu badute ere, gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituzten estaturik gabeko herrialde batzuei orain arte ustiatu ez dituzten bide eta aukerak agertzen zaizkie. Bereziki ikus-entzunezko komunikabideak sortzeko eta bultzatzeko gai diren herriei garapen politiko eta kulturalerako abagune egokia agertzen zaie; hain zuzen ere, baliabide gutxirekin nahi duten informazio mota euren muga geografiko eta administratibotik kanpo zabaltzeko aukera gehiago izango dutelako, eta horrek munduan egoteko aukera emango dielako.

Hirugarrenik, Euskal Herriak batasun maila handiagoa izango du, nire ustez, etorkizunean. Iparraldean Euskal Departamendua sortzeko arazo eta oztopo izugarriak badau-

de ere, kontuan izan behar da Estatu frantziarrak autonomia maila handiagoa onartu diola Korsikari; eta horrek Ipar Euskal Herriko 3 herrialdeek ere Euskal Departamendua lortuko dutenaren esperantza piztu duela. Areago, Euskal Departamenduaren sorrerak Hegoaldearen eta Iparraldearen artean harremanak sendotzeko balioko duela pentsatzen dut.

Honekin batera, argi dago estaturik gabeko herrialdeen inguruan gauzak mugitzen ari direla Europa zaharrean, eta horrek, nire ustez, ondorio baikorrak ditu Euskal Herriarentzat. Erabakiak era autonomoan hartzeko gero eta aukera gehiago agertzen ari zaizkie estaturik gabeko herrialdeei; edo, berdin dena, legebiltzar eta administrazio autonomo gehiago sortzen ari dira, han eta hemen (Eskozia, Gales, Korsika...). Nahiz eta estatu zentralistetan bizi eta mendeetan euren kulturak baztertuak izan, estaturik gabeko Europako zenbait herri nortasuna mantendu, garatu eta, azken urteetan, politikoki sendotzeko gai izan da.

Denborarekin Europako Batasunak orain arte eman dion baino garrantzi gehiago eman beharko dio erregioen edo estaturik gabeko herrialdeen auziari. Eskualdeen Batzordeak aholkularitza lanak baino ardura handiagoak izan beharko ditu, eta estaturik gabeko herrialdeei axola zaizkien gaietan ordezkaritza handiagoa eta konpetentzia gehiago onartu beharko dizkie. Gerta ala gerta, Europaren eraikuntzan estatuak ez diren egiturek parte-hartze handiagoa izango dute.

Arrazoi hauek denak erakusten digute abertzaleen ideologia eta, oro har, Euskal Herria XXI. mendean ere bizirik iraungo dutela etorkizunean. Horretarako, dena dela, nahita-ezkoa da nahi dugun gizarte mota zehaztea. Horrekin batera, ideologia politiko desberdinen artean negoziazioa bultzatu behar da, baita nazioarte mailan euskal gatazka agertzeko eta azaltzeko estrategiak bultzatu ere. Izan ere, elkarrizketa eta distentsiozko giroa sortzeko nazioarte mailako presioek paper garrantzitsua joka dezakete. Bestalde, aukera egokia

izan daiteke European sortzen dauden eskualde autonomoe-kin (Korsika, Eskozia, Alemaniako landerrak...) sare bat osatzea, eta estaturik gabeko herrialdeen interesak defendatzen dituztenen talde eta mugimenduen artean Europa osorako alderdi politiko handi bat bultzatzea. Izan ere, egitura politiko handiagoez gauzak lortu eta presioa egiteko aukera gehiago ematen dute. Prest gaude euskaldunok horrelako egitasmoen aitzindaritza hartzeko?

Gatazka gainditzen eta aniztasuna kudeatzen

Euskal gizartean dagoen ideia, egitasmo eta sentimendu aniztasuna aberasgarria da euskal kulturarentzat, politikarentzat zein, oro har, euskal gizartearentzat. Aniztasuna Euskal Herriaren berezitasunetarik garrantzitsuena da. Beraz, orain artekoak baino irtenbide sortzaileagoak eta aurrerakoiagoak aurkitu behar ditugu aniztasun hori babesteko eta errespetatzeko. Eta horrek esan nahi du, gaur egun Euskal Herrian hedaturik dauden alderdi politikoentzat, elkarteentzat zein ETA berarentzat ere sakrosainduak diren jarrera eta ikuspegi asko eta asko aldatu, edo behintzat birplanteatu, egin beharko direla.

Euskal Herriak antolaketa sozial, kultural eta politiko berria behar du. Eredu zaharrak alboratu, eta aro berri bati ekin behar zaio. Horretarako, bide horren alde lan egiteko prest dauden arteko adostasun sozial eta politiko zabala lortu beharko da. Are gehiago, aro berri hau lortzeko gai ez bagara, noraezeko egoera areagotuko da, abertzaletasuna ahuldu egingo da eta euskal nortasuna zalantzan egongo da. Eta txarragoa dena, gatazka bizirik mantendu duten nahiak, estrategiak eta ikuspuntuak bere horretan jarraituko dute XXII. mendean ere.

Honek guztiak ez du esan nahi Euskal Herri mestizo baten alde nagoenik. Ez dut uste Euskal Herrian dugun kultura eta nazio-identitate anitzen arteko gatazka gainditzeko elkarren alboan bizi diren kultura eta munduaren ikusmolde des-

berdinen gurutzaketa bultzatu behar denik. Are gehiago, mestizaiaren aukera bultzatzen bada, euskal nortasunaren mendekotasuna areagotu egingo da, eta euskal gatazka ez da konponduko.

Euskal gizartean bultzatu behar den aniztasunak oinarri argi bat izan behar du: elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekia bultzatu behar da inplikaturik dauden eragile, talde eta elkarte guztien artean. Kultura, nazio-identitate eta ideologiaren arteko enfrentamendua alde batera utziko duen auzolana bultzatu behar da.

Horretarako, interesgarria izan daiteke berdintasunaren inguruan hitzarmena zinatzea: bizi baldintzetan berdintasuna, pertsona guztien oinarritzko giza eskubideak babesteko; baldintza politikoetan berdintasuna, ideia eta nortasun guztiak askatasun osoz ordezkatzeko, eta baldintza demokratikoetan berdintasuna, egitasmo politiko guztiak joko-arau berberen arabera planteatu ahal izateko. Berdintasuna oinarritzko printzipio bat da eta ados jartzeko bidea eman diezaguke gaur egungo blokeotik irten ahal izateko. Hala ere, kontuz ibili behar da, gaizki ulertutako kulturen arteko "berdintasuna" ez ditzan gutxitutako hizkuntza eta kulturak ghetto linguistiko eta kulturaletan baztertuta utzi.

Unibertsalismo abstraktuaren eta murriztailearen aurrean, erlatibismoa dugu, kultura partikular bakoitza lehenesten duena. Nire ustez, bi joera hauek bateratzea komeni da: alde batetik, desberdina izateko eskubidea, eta bestetik unibertsaltasunari ateak zabaltzeko beharra.

Hau guztia lortzeko, baloreen aldaketa sakona bultzatu behar dugu. Gaur eguneko egoera gainditzeko, beharrezkoa da gutxiengoen eskubideen aldeko hezkuntza bultzatzea. Besteen kulturak eta hizkuntzak onartuko dituztenak, eta horien hobe-kuntzan parte hartzeko gai izango direnak.

Garrantzitsua da aniztasuna aberastasun gisa hartzea. Pluralismoa bultzatzea gizartean aberastasuna bultzatzea da.

Besteekiko tolerantzia eta errespetua izatea demokrazian beharrezko baldintzak dira eta horien irakaspena ekintza orokor eta iraunkor gisa hartu behar da. Nahitaezkoa da bideak jartzea gizarte honetako kideek besteen ikuspuntuak, nortasunak, kulturak eta hizkuntzak onartu ditzaten. Horretarako, ideologia desberdinen oinarri historikoak eta kulturalak irakatsi, ezaguturazi eta babestu beharko dira, baita pluralismo kulturala baloratu eta giza aberastasuna iturri gisa aurkeztu ere. Horrela bakarrik lortuko da gizakien eta kulturen arteko harmoniaren bermatzea, elkarrizketa demokratikoa sustatzea eta borroka armatua gainditzea.

Patxi Juaristi